

2020

## Gasteizko Ekonomia Suspertzeko Plana

Tokiko ekonomiaren aldeko jarduketak, COVID-19aren krisialdian



Gasteizko udalak laguntzak jarri ditu abian merkatariari, ostalariei eta hainbat sektore ekonomikotako enpresa txikiei laguntzeko. Planak **2,7 milioi eurotan** baloratutako ekintzak ditu, eta bost ardatzetan banatzen da:

<b>1</b>	<b>COVID-19 ezohiko laguntzak</b>	<b>&gt;&gt; 2</b>
<b>2</b>	<b>Bertako establezimendu txikien eta ostalaritzaren babesa</b>	<b>&gt;&gt; 3</b>
<b>3</b>	<b>Bertako enpresa-ehuna sendotzea</b>	<b>&gt;&gt; 4</b>
<b>4</b>	<b>Enplegua mantentzeko laguntza</b>	<b>&gt;&gt; 6</b>
<b>5</b>	<b>Gasteizko turismoa sustatzea</b>	<b>&gt;&gt; 7</b>

## 1

## COVID-19 ezohiko laguntzak

**Helburua**

Bertako ekonomiaren suspertze progresiboa erraztea, osasuna babestuz.

COVID-19aren aurkako babes-neurrien inbertsioetarako laguntza bereziak, Gasteizko enpresa, saltoki txiki eta ostalaritza-establezimenduentzat.

**750.000 €**

**Diruz lagun daitezkeen gastuak:** 2020ko martxoaren 15etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko aldiari —biak barne— dagozkion fakturak, kontzeptu hauei dagozkielarik:

- Norbera babesteko ekipamenduak (maskarak, eskularruak, pantailak..) eta prebentzio-rako eta osasun higienerako materialak, in stalazioen desinfekzioa (gelak, xaboi desinfektatzaileak), eta bestelako babes neurriak (manpara banatzaileak, metakrilatoak..).
- COVID-19ak eragindako aholkularitza gastuak.
- Eraldaketa digit alarekin lotut ako inbert sioak: t elelanarekin lotut ako ekip amendua eta software informatikoa, webgune korporatiboa eta sare sozialak marketin digital eta merkataritza elektronikoko estrategietara egokitzea edo garatzea, ...

*Kontzeptu horiek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, enpresen jarduera nagusia udalaren “digitalizaziorako laguntzak” deialdian diruz lagun daitezkeen jardueren barruan badaude.*

- Alarma-egoeraren ondorioz geldirik egon diren ekipoak eta makinak martxan jartzeko beharrezko gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gutxieneko inbert sioa: Enpresaren jardueran nagusia txikizkako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen alorretako bada, aurkeztutako proiektuek diruz lagun daitezkeen 500 euroko inbert sioa izan beharko dute, gutxienez; gainerako sektoreen kasuan, 100 0 euroko inbert sioa. Itzuli beharrik gabeko diru laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

**Hartzaileak:** Alarma-egoerak eragindako 10 langilera arteko enpresak (kanpo uzten dira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua dela eta beren jardueran bertan behera utzi ez zutenak). Bi ildotan banatuko dira:

- A. Txikizkako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen arlokoentzat: 450.000 euro. Mikroenpresa izateko bete beharreko betekizunak bete beharko dira (hamar soldatapeko baino gutxiago izatea eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra bi milioi eurotik beherakoa izatea), martxoaren 14an.
- B. Aurreko puntuan sartzen ez diren gainerako sektoreentzat: 300.000 euro. Mikroenpresa izateko bete beharreko betekizunak bete beharko dira (hamar soldatapeko baino gutxiago izatea eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra bi milioi eurotik beherakoa izatea), martxoaren 14an, eta gutxienez bost urteko antzinatasuna

**1 ardatzeko inbertsioa, guztira: 750.000 €**

## 2

**Bertako establezimendu txikien, ostalaritzaren eta hotelen babesa****Helburua**

Inbertsioa eta eraldaketa digitala establezimendu txikietan eta ostalaritzan.

Mantendu egiten dira hiriko merkataritza-enpresa txikiak modernizatzeko laguntzak.

**220.000 €**

**Zer:** Gasteizko udalerrian txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri, eraberritu eta modernizatzeko laguntzak.

**Hartzaileak:** Baldintza hauek bete zuten txikizkako merkataritza: **50 langile baino gutxiago izatea**, negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua ez ga inditzea eta aurreko baldintzak bete zuten ez dituzten enpresek % 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.

Bikoiztu egin dira hiriko ostalaritza-establezimendu txikientzako laguntzak eta gehitu egin dira bertako hotelentzakoak

**125.000 €**

**Zer:** Gasteizko udalerrian ostalaritza alorreko enpresa txikiak eta hotelak ezarri, eraberritu eta modernizatzeko laguntzak.

**Hartzaileak:** Baldintza hauek betetzen dituzten ostalaritza-establezimenduak: **50 langile baino gutxiago izatea**, negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua ez ga inditzea eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek % 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.

Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak digitalizatzeko laguntza berriak

**100.000 €**

**Zer:** Hiriko txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitala bultzatu eta laguntzea, teknologia berrien bitartez enpresa horien lehiakortasuna optimizatzeko baliabide gisa.

**Diruz lagun daitezkeen gastuak:** informatika-ekipoak eta beren periferikoak; enpresaren jarduera nagusiarekin lotutako kudeaketa-tresnak eta/edo softwarea; webguneen garapen, hobekuntza eta moldaketak; salmentapuntuan egiteko komunikazioarekin, erosketa-prozesu interaktibo bat sortzarekin eta/edo digitalizazioaren bidez produktua pertsonalizatzearekin lotutako tresna eta ekipoak; marketin digitaleko estrategien aplikazio eta diseinua, geolokalizazioarekin eta/edo bidatarekin lotutako tresna eta ekipoak.

**Hartzaileak:** Baldintza hauek betetzen dituzten merkataritza-establezimenduak eta ostalaritza-establezimenduak: **50 langile baino gutxiago izatea**, negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua ez ga inditzea eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek % 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.

**2 ardatzeko inbertsioa, guztira: 445.000 €**

## 3

## Bertako enpresa-ehuna sendotzea

**Helburua**

Sortu berri diren bertako enpresei laguntzea (<5 urte), bereziki industria-sektoreetan

## Enpresak sendotzeko laguntzak

**126.700€**

**Zer:** enpresak sortzeko eta martxan jartzeko gastuetarako laguntzak: erregistroa, notario-tza, komunikazioa, ka litatearen kud eaketako sistemak ezartzea et a ziurt atzea dela et a egin beharreko gastuak...

**Hartzaileak:** Egoitza fiskala Gasteizko udalerrian duten enpresak, jardua nagusia EJZ-ren epigrafe hauetan sartuta ez badute: Txikizkako merkataritza elikadura zerbitzuak / Etxeko tresna elektriko konponketa / Kontsumoko bestelako ondasunen konponketa / Bidaia-agentziak / Arropak pasartzea eta konpontzea / Ile-apaindegiko eta edertasuneko zerbitzuak. Enpresek baldintza hauetara bete behar dituzte: **mikroenpresak** izatea, aurretik zeuden enpresak aldatzetik sortutako enpresak ez izatea, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek % 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea, eta zerga-betebeharrak, lan-betebeharrak et a Gizarte Segurantzarekikoak egun ean izatea, baita udal-zergak ere. Baztertua geratzen diren sozietate publikoak et a zuzenbide publikoko erakundeak..

Onetsiak. Alarma-egoera amaitzeko zain.

## Ekintzaileentzako bekak

**85.000 €**

**Zer:** Gasteizko udalerriko ekonomia-jarduerara sustatzeko bekak, ekintzaileen kulturari laguntzea dela medio.

**Hartzaileak:** Gasteizen enpresak sortzeko ekimenak burutzen diharduten pertsona fisikoak, baldin eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan aldatuta ez badaude et a beren kabuz ekonomia-jarduerarik burutzen ez badute

Deialdia irekita. Lehen eskaera-epea ekainaren 15era arte.

## Ikus-entzunezkoen sektorerako laguntzak

**100.000 €**

**Helburua:** ikus-entzunezko industriaren sektorea suspertzea et a sustatzea.

**Zer:** zinema, telebista et a plataforma digitalen proiektuen garapena, film laburren ekoizpena et a gidoiak idazteko laguntzak.

**Hartzaileak:** jarduerak ekonomikoa ikus-entzunezkoen alorrean garatzen duten et a egoitza soziala Gasteizen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak.

Onetsiak. Alarma-egoera amaitzeko zain.

## Covid laguntzei buruzko informazio zerbitzua

### Doakoa

Pasa den martxoaren 28tik, Ekonomia-Sustapenaren, Merkataritzaren, Enpleguaren eta Turismoaren Sailak Gasteizko merkataria, autonomo, enpresa ertain eta txikien eskura jarri du udal arlo honetan ezagutza teknikoak dituen aditu talde bat, 8 pertsonak osatua, zenbait administraziok COVID-19aren krisian hartu dituzten neurrien inguruan aholku integral eta doakoak eskaintzeko.

Egin beharreko izapideei buruzko argibideak ematea eta laguntzak eskatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea du xede. Interesdunek posta elektronikoz egin dezakete kontsulta ([promocioneconomica@vitoria-gasteiz.org](mailto:promocioneconomica@vitoria-gasteiz.org)), eta harremanetarako telefono-zenbakia jarri. Zuzenean deitu nahi izanez gero, 945161962 edo 010/945161100 telefono zenbakietara deitu.

## Aholkularitza ekonomiko eta finantzarioko zerbitzua

### Doakoa

Bizi dugun egoerak, Covid-19ak eragindako Alarma-egoera dela eta, enpresa-ehunean modu negatibo eta zuzenean du eragina. Horrez gain, datozen hilabeteetarako agertokia gutxienez zalantzarria da.

Orain beste inoiz baino gehiago funtsezkoa da gure negozio ereduaren kalitatiboki eta kuantitatiboki ezagutu eta aztertzea erabakirik onenak hartzeko. Adibidez, zorpetze maila handitzen duten finantzaketa-erabaki batzuek etorkizunean tentsioak eragin ditzakete hartutako itzultze-konpromisoei aurre egiterako orduan.

Enpresa-kudeaketan eskarmentua duen talde bizi batek diru-sarreraren galerak eragindako ondorioak aztertuko ditu eta hartu beharreko neurriei buruzko orientazioa eskainiko du, enpresa testuinguru ekonomiko honetara modu onenean moldatu dadin.

Aholkularitza ekonomiko eta finantzarioa:

- Negozio-ereduaren berraztertzea
- Emaintza-kontuaren eta balantzaren analisia (gastuen egitura, salmentakopurua, desbiderapena, proiektzioa...).
- Zorpetze handiago baten arriskua
- Krisiaren inpaktua eta aukera ezberdinen balorazioa (finantzaketa-ildoak, zorraren birfinantzaketa, hornitzaileekin negoziatzea, plantilla berregituratzea, sinatutako kontratuak...)
- Etab.

Aholkularitza online izaingo litzateke, edo aurrez aurrekoa (posible bada, eta betiere Covid-19aren eraginak ekiditeko segurtasun neurriak errespetatuta).

## Udalaren enpresa zentroetako alokairuaren ordainketa atzeratzea

Alokairua 3 hilabetez atzeratzeko aukera eskaini zaie Udalaren enpresa zentroetako enpresei; baita 6 hilabetez luzatzeko aukera ere. Aldi hori iragan ondoren, enpresaz enpresa aztertuko dira kasuak, eragite-maila zehazteko, eta horren arabera jokatzeko.

## Gamarrako ateko obra

**700.600 €**

Gamarrako ateko zati bat eraberritzea, industria-mahaiak eskatuta.

**3 ardatzeko inbertsioa, guztira: 1.012.300 €**

## 4

## Enplegua mantentzeko laguntza

**Helburua**

Enpresa txikiei laguntza ematea COVID-19aren aurretik zuten plantilla berreskuratu eta mantentzeko.

Enplegua mantentzeko laguntzak mikroenpresentzat, eta Gasteizko aurrekontu partida handitzea.

**450.000€**

**Zer:** Alarma-egoera piztu aurretiko enplegua sustatzea, itzuli beharrik gabeko laguntza ekonomikoen bidez. Gehienez 2.000 euro emango dira berreskuratzeko kontratubakoitzeko eta gehienez 6.000 euroko laguntza emango da enpresa bakoitzeko. Berreskuratzeko 3 enplegu gehienez enpresa bakoitzeko. Lanaldien berreskuratzearen kasuetan, laguntza proportzionala izango da berreskuratze horrekiko.

**Hartzaileak:** Gasteizko lantoki batean egoitza soziala duten eta gutxienez langile bat eta gehienez 10 lanpostu dituzten enpresak eta autonomoak.

Laguntza hau enplegua mantentzeko **erantzukizun publiko-pribatuko mekanismo** gisa egituratzen da, enplegua berreskuratzeko eta **mantentzeko** konpromisoa hartzen duten enpresei udal-laguntza ematen baitzaie. Plantillaren mantentzea **4 hilabetez** bermatu beharko da Alarma-egoera bertan behera utzi on doren edo Aldi Baterako Erregulazio Txostenaren (ERTE) egoeratik atera ondoren.

Dirulaguntza izango duten enpleguak Alarma-egoeraren aurretik plantillaren parte izandako **persona berberak** izan beharko dira eta orduan zituzten lan baldintza berberak edo hobeak izan beharko dituzte (soldata, lanaldia, kontratu-mota).

Horrez gain, balorazio-irizpide bezala kontuan hartuko dira lan-kontratuen kalitatea eta hobekuntza eta sektore ahulen enpleguaren berreskuratzea, hala nola, 55 urtetik gorakoa edo emakumeen.

**On line prestakuntzako ikastaroak egokitu eta indartzea**

Martxoaren 20an jarri zen abian neurri hau. 250 ikastaro guztira, sektore guztietan lanbide-prestakuntza eta prestakuntza espezialdua lortzeko. Honako kategoriak eskaini dira, besteak beste: informatika, diseinu grafikoa, merkataritza eta marketina, ostalaritza eta turismoa, ingurumena eta laneko arriskuen prebentzioa. Ikastaroak auto-prestakuntzako plataforma informatiko batean egiten dira, eta norberaren ekipo informatikoaren bidez egiteko aukera dago, norberaren egoerara eta orduetara egokituta. Lanpostuak sortzeko sektore aktiboenetan prestakuntza-jarduerak ere badira udalaren programazioaren barne

**4 ardatzeko inbertsioa, guztira: 450.000 €**

## 5

**Gasteizko turismoa sustatzea****Helburua**

Gasteizen irudia sustatzea eta hedatzea.

Hurbileko produktua sustatu eta sortzeko ildo berria.  
Biltzar-turismoa sustatzea.

**40.000 €**

**Zer:** 2020an zehar garatzen diren produktu turistikoak eta esperientzia turistikoak sortzeko eta abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak.

**Hartzaileak:** zerbitzu turistikoak eskaintzen dituzten edo sektore turistikoan eragina duten enpresa eta autonomoak.

**Ekintzak:** bi linea bereizten dira, batak esperientzia turistikoak sortzen dituzten enprei bideratua eta bestea biltzar-turismoa sustatzera bideratua.

**5 ardatzeko inbertsioa, guztira: 40.000 €**

	<b>Guztira, 5 ardatzak batuta</b>	<b>2.697.300 €</b>
<b>1</b>	COVID-19 ezohiko laguntzak	750.000 €
<b>2</b>	Bertako establezimendu txikien eta ostalaritzaren babesa	445.000 €
<b>3</b>	Bertako enpresa-ehuna sendotzea	1.012.300 €
<b>4</b>	Enplegua mantentzeko laguntza	450.000 €
<b>5</b>	Gasteizko turismoa sustatzea	40.000 €